Atxiki gabeko kideek, talde bezala hartuta, eskubidea izango dute Batzorde Informatzaileetan parte hartzeko udal taldeen eskubide eta betebehar berberekin. Atxiki gabeko kide kopurua aldatuko balitz, ondorioz lortutako proportzioarekin bat datorren izendapen berri bat egin beharko litzateke.

Ados jarriko ez balira, Alkatetzak banatuko ditu zinegotzi horiek batzordeen artean, beti ere parte hartzeko berdintasuna gordetzen saiatuz.

Halaber, atxiki gabeko kideek Udal Talde Politikoek dituzten beste eskubide politikoak ere baliarazi ahal izango dituzte, talde bezala hartuta duten kopuruaren arabera.

Ezingo dute Udal Talde Politikoek jasotzen duten diru kopuru finkoa jaso, baina kopuru aldakorraren 100% jasotzeko eskubidea izango dute.

4. Artikulu honetan ezarritakoa ezingo da erabili hauteskunde-zerrendan koalizioan aurkeztu eta ondoren horko alderdiren batek koalizioa uztea erabakitzen duenean.

*24. artikulua. Udal Talde Politikoentzako lokalak.*

Udal taldeek eta atxikigabeko zinegotziek, lan bilerak egiteko udal lokalak erabili ahal izango dituzte. Alkate Buruaren dekretuz arautuko da lokalen erabilera zehatza, udal bulegoen irekiera eta itxiera ordutegiarekin bat etorriz.

*25. artikulua. Organo kolegiatuetarako ordezkariak izendatzea.*

Udal Taldeei dagokie talde desberdinetako zinegotziek osatutako organo kolegiatu guztietan beren kideen artean nork ordezkatuko dituen izendatzea. Horretarako, beren bozeramaileak idatzi bat zuzenduko dio Alkatetza-Lehendakaritzari Erregelamendu honetan horretarako ezarritakoaren arabera.

Atxiki gabeko kideek Erregelamendu honen 25.3 artikuluan xedatutakoaren arabera erabiliko dute eskubide hori.

## II. TITULUA

## UDAL ORGANOAK

### I. KAPITULUA. ALKATETZA-LEHENDAKARITZA

*26. artikulua. Alkatetza-Lehendakaritza aukeratzea eta kargutik kentzea.*

Alkatetza-Lehendakaritza aukeratzea eta kargutik kentzea hauteskunde-legeriak agintzen duenaren arabera egingo da.

*27. artikulua. Eskumenak. Eskuordetzeak.*

1. Alkatetza da Udalbatzako buru. Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan banan-banan aipatzen diren eskumenak ditu, eta baita legeek espresuki ematen dizkiotenak eta Estatuko edo Autonomia Erkideko legeek inolako organorik zehaztu gabe Udalari ematen dizkiotenak ere.

2. Alkatetza-Lehendakaritzari dagokio, halaber, alkateordeak izendatzea.

3. Alkatetza-Lehendakaritzak bere eskumenen jarduna eskuordetu dezake, Estatuko oinarrizko araudiak eta, izanez gero, garapeneko araudi autonomikoak ezartzen dutenaren arabera.

4. Eskuordetutako gaietan Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiek Alkatetza-Lehendakaritzak eskuordetu ez dituen eskumenetan emandako ebazpenen balio bera izango dute, erabakiak Batzarraren jarduera-arauen arabera hartzeari kalterik egin gabe.

5. Alkatetza-Lehendakaritzak udal jarduerako arlo jakinei buruzko eskuordetze orokorrak egin ditzake Tokiko Gobernu Batzarreko kideen alde; baita hauetako gai jakinak zuzendu edo kudeatzeko berariazko eskuordetzeak ere edozein zinegotziren alde. Horrelakoetan, eskuordetze orokorra duen zinegotziak bere arloko betebehar jakinetarako eskuordetzeak dituzten zinegotzien jarduna ikuskatzeko ahalmena izango du.

6. Eskuordetze orokorrak arlo bati, arlo batzuei edo gai jakin batzuei buruzkoak izan daitezke, eta dagozkien zerbitzuak zuzentzeko zein orokorrean kudeatzeko ahalmena har dezakete bere baitan, beste batzuengan eragina izan dezaketen administrazio-egintzak ebazteko gaitasuna barne.

7. Berariazko eginkizunetarako eskuordetzeak hiru eratakoak izan daitezke:

a) Proiektu jakin bati dagokiona. Kasu honetan, eskuordetzearen eraginkortasuna proiektua kudeatu edo burutu bitarteko epera mugatuko da. Eskuordetzeak Alkatetzak eskuordetu ditzakeen eskumen guztiak izan ditzake, beste batzuengan eragina izan dezaketen egintzak ebaztea barne.

b) Gai jakin batzuei dagokiona, denbora mugarik gabe. Kasu honetan, eskuordetutako eskumenak dagozkion zerbitzuen barne-zuzendaritza eta kudeaketa hartuko du bere baitan. Hala eta guztiz ere, beste batzuengan eragina izan dezaketen administrazio-egintzak ebazteko ahalmena Alkatetzaren edo dagokion Arloko Eskuordeko Zinegotziaren esku egongo da.

c) Barruti edo auzo bati dagokiona. Alkatetza-Lehendakaritzak eskuordetu ditzakeen eskumen guztiak izan ditzake bere baitan, arlo jakin batzuen inguruan, baina eskuordetzearen lurralde-eremura mugatuak.

Horrelako eskuordetzeak eta arlokako eskuordetze orokorrak batera ematen direnean, eskuordetzeko Dekretuek zarriko dituzte batzuen eta besteen arteko koordinazio mekanismoak, Udalerriko aginte eta kudeaketa batasuna bermatu dadin.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

*28. artikulua. Alkatetza-Lehendakaritzaren eskuordetzeak formalizatzea.*

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren eskuordetze guztiak Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretu bidez egingo dira. Dekretuak eskuordetzeari dagozkion gaien esparrua, eskuordetuko diren ahalmenak eta, Erregelamendu honetan ezarritakotik urruntzen direnean, eskuordetzean jarduteko baldintza bereziak azalduko ditu.

2. Dekretuan besterik esaten ez bada, Alkatetza-Lehendakaritzaren eskumenen eskuordetzea Dekretuaren hurrengo egunean jarriko da indarrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharraren kalterik gabe.

3. Aurreko ataletako arau horiek aplikagarri izango dira gerora eskuordetzeek izan dezaketen edozein aldaketaren aurrean ere.

3. Eskuordetzeak sortu edo aldatu ondorengo lehenengo Udalbatza Osoko Bilkuran emango da horien berri.

II. KAPITULUA. ALKATEORDEAK

*29. artikulua. Alkateordeak izendatzea. Formalizatzea. Kopurua. Alkateorde izaera galtzea.*

1. Alkatetza-Lehendakaritzak askatasunez izendatuko nahiz kargugabetuko ditu alkateordeak Tokiko Gobernu Batzarreko kideen artetik. Izendapenak eta kargugabetzeak Alkatetza-Lehendakaritzak ebatzita egingo dira. Ebazpen horren berri hurrengo Udalbatza Osoko Bilkuran emango da, eta izendatutakoei zuzenean jakinaraziko zaie; gainera, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Dena den, Alkatetza-Lehendakaritzako ebazpena sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, bertan besterik xedatzen ez bada behintzat.

2. Alkateorde kopuruak ezin izango du Udalbatza osatzen duten zinegotzi kopuruaren herena baino gehiago izan.

3. Alkateorde izaera horrela galtzen da:

— Idatziz adierazitako berariazko ukoa eginez.

— Tokiko Gobernu Batzarreko kide izateari utziz, Alkatetza-Lehendakaritzak izendapena baliogabetu duelako.

o Zinegotzi kargua utzi duelako, edozein direlarik ere horretarako arrazoiak.

*30. artikulua. Alkateordeen eskumenak - Alkatetza-Lehendakaritzak botorik ez emateko arrazoiak.*

1. Alkateordeei dagokie, Alkate-Lehendakariak egindako izendapenaren ordena jarraituz, haren egiteko guztiak betetzea, kanpoan edo gaixo dagoenean edo bere eskumenak erabiltzea ezinezkoa duen ezintasun egoeretan; baita Alkatetza-Lehendakaritza hutsik geratzen bada ere. Kanpoan edo gaixo dagoenean, Alkatetza-Lehendakaritzaren egitekoak dagozkion Alkateordeak ezingo ditu egiteko horiek bere gain hartu formalitateekin egindako berariazko eskuordetzerik gabe.

2. Aurreko idatzatian ezarritakoa horrela izanda ere, Alkatetza-Lehendakaritzako titularrak eskuordetzea eman gabe udalerritik kanpora 24 ordu baino gehiago ematen baditu edo aurreikusi gabeko arrazoiren batengatik ematea ezinezkoa izan bazaio, dagokion Alkateordeak ordezkatuko du bere egiteko guztietan, eta Udalbatzari horien berri emango dio.

3. Era berean, bilkura bateko gai jakinen batean Alkate-Lehendakariak parte hartzeari uko egin beharko balio, zuzenean izendapenaren hurrenkeraren araberako alkateordeek ordezkatuko lukete, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76 artikuluaren arabera.

*31. artikulua. Alkatetza-lehendakaritzak egindako eskuordetzeak baliogabetzeko ezintasuna.*

Alkatetza-Lehendakaritza kanpoan edo gaixo dagoelako ordezkatzen denean, egitekoak bere gain hartzen dituen alkateordeak ezingo ditu Alkatetzak emandako eskuordetzeak baliogabetu.

## III. KAPITULUA. UDALBATZA OSOKO BILKURA

### *32. artikulua. Osaketa.*

Udalbatzako Osoko Bilkura zinegotzi guztiek osatzen dute eta Alkatetza-Lehendakaritza du buru.

### *33. artikulua. Eskumenak.*

1. Udalbatzako Osoko Bilkurari dagozkio apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluak aipatzen dituen eskumenak, baita Legeek berariaz ematen dizkiotenak ere.

2. Udalbatzako Osoko Bilkurari dagozkio, halaber, Alkatetza-Lehendakaritzaren aurkako zentsura mozioa eta Alkatetza-Lehendakaritzak azaldutako konfiantza-galdekizuna bozkatzea, hauteskunde-legedi orokorrean ezartzen denaren arabera.

### *34. artikulua. Udalbatza Osoko Bilkuraren eskumenak eskuordetzea. Formalizatzea.*

1. Udalbatzako Osoko Bilkurak bere eskumenen jarduna eskuorde diezaieke Alkatetza-Lehendakaritzari eta Tokiko Gobernu Batzarrari, tokiko araubideari buruzko legediak azaltzen dituen salbuespenekin.

2. Udalbatzako Osoko Bilkurak gehiengo soilez erabakiko du eskuordetzea, tokiko araudiari buruzko Autonomia Erkidegoko legeek besterik ez badute ezartzen. Eskuordetze-erabakia hartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharraren kalterik gabe. Arau horiek erabaki honek aurrerago izan ditzakeen aldaketetarako ere jarraitu beharko dira.

3. Eskuordetzeari buruzko erabakiak zehaztuko du zein den eskuordetzearen gaien esparrua, zeintzuk diren zehazki eskuordetu diren ahalmenak eta zein baldintza berezi bete behar den ahalmen horiek erabili ahal izateko; hala egin beharko da eskuordetzea egitean Erregelamendu honetan ezartzen den araubide orokorrarekiko aldaketak daudenean.

## IV. KAPITULUA. TOKIKO GOBERNU BATZARRA

### *35. artikulua. Osaketa. Izendapena.*

1. Tokiko Gobernu Batzarra Alkatetzak eta Alkatetzak berak askatasunez izendatu dituen zinegotziek osatuko dute. Alkatetza da Tokiko Gobernu Batzarraren buru.

2. Alkatetza-Lehendakaritzak edozein unetan eta askatasun osoz ken dezake edozein kide TokikoGobernuBatzarretik.

3. Izendapenak eta kargugabetzeak Alkatetzaren Dekretu bidez egingo dira. Dekretu horren berri hurrengo Udalbatza Osoko Bilkuran emango da, eta izendatutakoei zuzenean jakinaraziko zaie; gainera, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Dena den, Dekretua sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, bertan besterik xedatzen ez bada behintzat.

4. Alkatetza-Lehendakaritzak ebazpen bakar batean egin ditzake Tokiko Gobernu Batzarrerako izendapen bat eta Erregelamendu honetako 29. artikuluko 5 eta 6 puntuetan azaltzen den eskumenen eskuordetzea.

### *36. artikulua. Eskumenak.*

1. Tokiko Gobernu Batzarraren eskumen eskuordeezina da Alkatetza-Lehendakaritzari bere betebeharretan etengabe laguntzea.

2. Tokiko Gobernu Batzarrak, halaber, Alkatetza-Lehendakaritzak edo Udalbatzako Osoko Bilkurak 29. eta 36. artikuluetan ezarritakoaren arabera berari eskuordetutako eskumenak izango ditu; eta baita legeek ematen dizkiotenak ere.

3. Alkatetza-Lehendakaritzak eta Udalbatzako Osoko Bilkurak Tokiko Gobernu Batzarrari egindako eskuordetzeak Erregelamendu honetako 29. eta 36. artikuluek arautuko dituzte.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

V. KAPITULUA. KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA

### 37. artikulua. Nahitaezko izaera. Osaketa.

1. Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. artikuluaren aginduz, Kontuetarako Batzorde Berezia izatea nahitaezkoa da. Izaera bereziko batzorde informatzaile honek beste batzorde informatzaileen egitura bera du eta bere kideak sistema bera jarraituz aukeratuko dira.

2. Hala ere, Udalbatza Osoak hartutako erabakia medio, Hazienda Batzorde Informatzailea Kontuetarako Batzorde Berezi bezala aritu ahal izango da, hala dagokionean.

### 38. artikulua. Eskumenak.

1. Tokiko Erakundeen kontabilitatea arautzen duen legeriaren arabera, Kontuetarako Batzorde Bereziak Urteko Kontuak aztertuko ditu eta horiei buruzko txostena emango du, ondoren Udalbatza Osoak onar ditzan.

2. Kontuetarako Batzorde Berezia urtean zehar bilduko da, Udalbatza Osoak aipatutako kontuak onartu behar dituenean, eta batzordeburuak legez egin beharreko deialdiaren ondoren.

VI. KAPITULUA. -BATZORDE INFORMATZAILEA(K)

### 39. artikulua. Batzorde informatzialea(k). Osaketa.

1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 20. 1c) artikulua betetzeko, Batzordea(k) sortuko d(ir)a –Udalbatza Osoak sortu eta onartu dituen arlo kopuruaren arabera–, Udalbatza Osoko gaien azterketa, berri emate, kontsulta edo irizpenak emateko, eta baita Alkatetzaren, Tokiko Gobernu Batzarraren eta eskuordetzeak dituzten zinegotzien kudeaketa jarraitzeko ere, Udalbatza Osoari dagozkion kontrol-eskumenei kalterik egin gabe.

2. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute Batzorde Informatzaile hauetan parte hartzeko eskubidea, talde bakoitzeko zinegotzi baten bitartez. Horretarako, bozeramaileak sinatutako idatzia aurkeztu beharko dute. Halaber, Udal Talde Politikoetako kideen ordezko batzordekideak ere izendatu ahal izango dira.

Erregelamendu honen 25.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, atxiki gabeko zinegotziek ere erabili ahal izango dute eskubide hori.

3. Talde politikoek, udalkide titularraz eta ordezkoaz gain, batzorde bakoitzeko zinegotzi ez den taldeko ordezkari bat izendatu ahal izango dute. Horretarako, bozeramaileak sinatutako idatzia aurkeztu beharko dute Udaletxean. Eskubide berbera izango dute atxiki gabeko zinegotziek, talde bezala hartuta.

Izendatutako ordezkari horri batzorde informatzaileko zinegotzi diren beste kideei ematen zaien informazio bera emango zaio, eta batzorde informatzaileko bileretan parte hartu ahal izango du berbarekin baina boto-eskubiderik gabe.

Ordezkari honek ere udalkideek duten eta Erregelamendu honetako 13. artikuluan aurreikusten den informazioa isilean gordetzeko betebeharra izango du. Horretaz gain, uko egin beharko dio parte hartzeari edozein gairen eztabaidan, gai horrekiko administrazio-prozeduraren eta Herri Administrazioetako kontratuen legediak aipatzen dituen bateraezintasun arrazoiren bat gertatzen bada.

4. Alkatetza izango da batzorde guztietako buru, baina ahalmen honen jarduna batzordeak osatzen dituzten edozein kideri eskuordetu ahal izango dio.

5. Erregelamendu Organiko honetako 77. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera bilduko d(ir)a aipatutako batzordea(k).

6. Batzorde horiek Tokiko Gobernu Batzarraren edo Alkatetzaren eskumeneko gaiak informatu ahal izango dituzte, bi organo horiek berariaz erabakitzen badute gaiak batzorde horien jakinean jartzea.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

Tokiko Gobernu Batzarrak zein Alkatetzak beren eskumeneko gaiak aztertzeko beste organo -batzuk sor ditzakete.

7. Batzorde hauetako fede emaile publikoa Udaleko Idazkari Nagusia izango da, edo bere eskuordetzez izendatzen diren teknikoak.

VII. KAPITULUA. -ALKATEAREN ORDEZKARI PERTSONALAK

*40. artikulua. Alkatearen ordezkari pertsonalak.*

Hirigunetik kanpo dauden, eta toki-entitateak eratzen ez dituzten, bizigune edo auzoetan, Alkateak auzorako ordezkari pertsonal bat izendatu ahal izango du.

Kargu honen iraupena izendatu duen Alkatearen agintaldiaren araberakoa izango da. Eta Alkateak kargutik kendu ahal izango du egoki deritzonean.

Udalaren zereginak betetzerakoan, ordezkariek agintari izaera dute, izendatu zituen Alkatearen ordezkariak diren neurrian.

VIII. KAPITULUA. KONTSEILU SEKTORIALAK

*41. artikulua. Izatea. Eskumenak.*

1. Udalbatza Osoak Kontseilu Sektorialak ezartzea erabaki dezake; kontseilu horien xedea udalaren gaietan herritarren eta elkarteen partaidetza bideratzea izango da.

2. Kontseilu Sektorialak txostenak emateko eta, hala badagokio, proposamenak egiteko soilik izango dira, betiere kontseilu bakoitzari dagokion alorreko udal ekimenei buruz.

*42. artikulua. Osaketa, antolaketa eta jarduteko araubidea.*

1. Kontseilu Sektorialen osaketa, antolaketa, jarduera-eremua eta jardunbidea dagokion jarduteko araudian zehaztuko dira.

2. Dena den, zinegotzi bat izango da kontseilu bakoitzeko buru. Alkatetza-Lehendakaritzak askatasun osoz izendatuko eta bananduko duen zinegotzi horrek Kontseiluaren eta Udalaren arteko zubi lana egingo du.

IX. KAPITULUA. -UDALBATZA OSOAK BESTE GOBERNU-ORGANOEN JARDUERA KONTROLATZEA ETA FISKALIZATZEA

*43. artikulua. Kontrolatzeko eta fiskalizatzeko baliabideak.*

1. Udalbatza Osoak honako baliabideak ditu beste gobernu-organoen jarduera kontrolatzeko eta fiskalizatzeko:

a) Eskuordetzeak dituzten Udalbatzako kideei bertan agertu eta informatzeko eskatzea.

b) Tokiko Gobernu Batzarraren jarduerari buruz eztabaidatzea.

c) Alkatetza-Lehendakaritzaren zentsura-mozioa.

d) Konfidantza-galdekizuna.

2. Ohiko Udalbatza Osoetan, eguneko gai zerrendako erabaki beharreko gaiak zein gai zerrendaz kanpo erantsi diren gaiak aztertzen amaitu ondoren, berezko ezaugarri eta berezitasunekin bideratzen dira bi kontu: Udal talde guztiek galderak eta eskaerak azaltzeko parte hartzea batetik; eta Udalbatzako beste udal organoak kontrolatzea, bestetik.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

### 44. artikulua. Eskuordetzeak dituzten zinegotziak Udalbatza Osoko Bilkuraren aurrean agertzea.

1. Alkatetza-Lehendakaritzak eskuordetuta kudeaketa arlo bateko ardura duen Udalbatzako kide oro behartuta egongo da, Udalbatzako kideren batek horrela eskatzen duenean, Osoko Bilkuraren aurrean agertzera helburu bakar honekin: Bere jarduerari buruz egingo zaizkion galderak erantzuteko. Eskaera egiterakoan artikulu hau aipatu beharko da, baita eztabaidatu beharreko gaia edo ebazpena zein den ere.

2. Udalbatza Osoak udalbatza kide baten aipatutako agertu beharra erabaki ondoren, Alkatetza-Lehendakaritzak agerpen hau Udalbatza Osoko hurrengo ohiko bilerako eguneko gai zerrendan jarriko du, Gobernu-Organoen Kontrola atalean; eta berariaz jakinaraziko zaizkio interesatuari egoera hori eta agertu behar duen bileraren data. Jakinarazpen horren eta bileraren artean hiru lanegun izango dira, gutxienez.

### 45. artikulua. Tokiko Gobernu Batzarraren kudeaketa eztabaidatzeko ezohiko bilera.

1. Udalbatza Osoak, Alkatetza-Lehendakaritzak proposatuta edo udalbatzako legezko kide kopuruaren gutxienez laurdenak horrela eskatuta, ezohiko bilkura egitea erabaki dezake Tokiko Gobernu Batzarraren kudeaketa eztabaidatzeko xedearekin.

2. Aurreko puntuan aipatzen den bilkura orokorrean ezarritako arauen arabera egingo da, eta lehenengo eta behin proposamena egin duenak hartuko du hitza, proposamena zertan datzan azaltzeko. Tokiko Gobernu Batzarrak izendatutako bertako kide batek erantzungo dio, eta erantzuteko -txanda bana izan ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari galderak egiteko beste Udal Talde Politikoen edo atxiki gabeko kideen txanda izango da; Tokiko Gobernu Batzarrak izendatutako kideak erantzungo ditu galdera horiek.

3. Eztabaidaren ondorioz, mozioa sartzeko eskaera aurkeztu daiteke, Udalbatza Osoak Tokiko Gobernu Batzarraren kudeaketari buruz bere iritzia eman dezan. Udalbatza Osoak gehiengo soilez mozioa eztabaidatzea onartuko balu, hori hurrengo Osoko Bilkurako aztergaien zerrendan sartuko litzateke, bilkura ohikoa nahiz ezohikoa izan. Horretarako, proposamena egin duen Udal Talde Politikoak edo/eta atxiki gabeko kideak Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko du hiru laneguneko epean.

### 46. artikulua. Alkatetza-Lehendakaritzari zentsura-mozioa.

1. Alkatetza-Lehendakaritzari zentsura mozioa ezartzea eztabaidatu eta bozkatzeko ezohiko bilkurak dagokion hauteskunde-legediak arautzen duena beteko du.

2. Alkatetza-Lehendakaritzari zentsura mozioa ezartzeko bozketa publikoa eta izenduna izango da.

### 47. artikulua. Alkatetza-Lehendakaritzak aurkeztutako konfiantza-galdekizuna.

1. Alkatetza-Lehendakaritzak aurkeztutako konfiantza-galdekizunak dagokion hauteskunde-legediak arautzen duena beteko du.

2. Bozketa publikoa eta izenduna izango da.

III. TITULUA

UDAL ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA. UDALBATZAREN FUNTZIONAMENDUA

1. ATALA. Osoko bilkurak

### 48. artikulua. Osoko Bilkurak egiteko lekua.

Udaleko Osoko Bilkurak Udaletxean egingo ditu bere saioak, ezinbesteko egoeretan izan ezik; halakoetan, deialdiaren bitartez edo Alkatetza-Lehendakaritzak arrazoiak azalduz ebazpen bat egin eta zinegotzi guztiei jakinarazi ondoren, beste eraikuntza edo lokal bat erabili ahal izango da bilkura egiteko. Dena den, aktan jarriko da gertaera hau.

### 49. artikulua. Osoko Bilkura motak. Publikotasuna.

Udalbatza Osoko bilkurak hiru motakoak izan daitezke:

a) Ohikoak.

b) Ezohikoak.

c) Presako ezohikoak.

### 50. artikulua. Ohiko bilkurak. Ezohiko bilkurak. Presako ezohiko bilkurak.

1. Bergarako Udalbatza Osoko ohiko bilkuren maiztasuna Alkatetzak proposatu eta Udalbatza Osoaren erabakiz ezarriko da; bide batez, bilkurak egiteko ordua eta eguna ere zehaztuko dira.

2. Ezohiko bilkurak Alkatetza-Lehendakaritzak deituko ditu, bere ekimenez nahiz Udalbatzako legezko kideen laurdenak edo gehiagok horrela eskatu diolako. Dena den, zinegotzi bakoitzak ezingo du urtean hiru ezohiko bilkura baino gehiago eskatu. Ezohiko Osoko Bilkura ezingo da eskaera egin denetik hamabost lanegun baino gehiago berandutu. Ezingo da bilkura honetako eztabaidagaia Osoko Ohiko Bilkura bateko edo beste Ezohiko Osoko Bilkura bateko gai-zerrendara gehitu, deialdia eskatu dutenek berariaz hala onartzen ez badute. Alkatetza-Lehendakaritzak ez balu ezarritako epearen barruan behar bezalako zinegotzi-kopuruak eskatutako Ezohiko Osoko Bilkura deituko, epea amaitu ondorengo hamargarren laneguneko hamabietarako deitua izango da zuzenean; horrela jakinaraziko die Udalbatzako Idazkaritzak kide guztiei lehen aipatutako epea amaitu eta hurrengo egunean. Lehendakaritzarik edo legez ordezkatuko duenik izan ezean, Osoko Bilkuraren eraketa baliozkoa izango da TAOL-eko 42-c artikuluan araututako quoruma izanez gero. Horrelakoetan, bilkuran dauden Udalbatzako kideen arteko zaharrena izango da buru.

3. Aztergaia(k) presakoa(k) d(ir)elako, ezohiko bilkuraren deialdia egiteko apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera behar diren gutxieneko bi laneguneko epea betetzea ezinezkoa balitz, Alkatetza-Lehendakaritzak presako ezohiko bilkura dei lezake. Kasu horretan, gai-zerrendako lehen aztergaia izango da Osoko Bilkurak presako izaerari buruz erabakitzea. Osoko Bilkurak gaia presako ez dela erabakiko balu, bilkura bukatutzat joko litzateke.

### 51. artikulua. Egintza batasunaren printzipioa.

1. Saio orok, ohikoa nahiz ezohikoa izan, egintza batasunaren printzipioa errespetatu beharko du, eta hasi den egun berean bukatzen saiatu beharko da. Saioa eguneko aztergaien zerrendako gai guztiak eztabaidatu eta erabaki gabe bukatuko balitz, Alkatetza-Lehendakaritzak bilkura amaitutzat jo dezake. Baina kasu horretan, eztabaidatu gabe gelditu diren gaiak hurrengo saioko aztergaien zerrendan sartu beharko dira.

2. Saioan zehar, Alkatetza-Lehendakaritzak zentzuzko iritzitako etenaldiak egitea erabaki dezake taldeek beren aldetik eztabaidagaiari buruzko deliberazioak egiteko edo atsedenerako.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

### 52. artikulua. Bilkuretara joan beharra.

Zinegotzi guztien eginbeharra da Osoko Bilkuretara joatea. Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak xedatutakoari jarraituz, Osoko Bilkuretara behar bezala justifikatu gabe ez joateak Alkatetza-Lehendakaritzak Legeak aurreikusten dituen zigorrak ezartzea ekar dezake.

### 53. artikulua. Bertaratze-quoruma. Lehen deialdia eta hurrengoak.

1. Osoko Bilkura baliozko eran egingo da kideen legezko kopuruaren herena bertaratuz gero. Quorum hori saio osoan mantendu beharko da. Dena den, Lehendakariak eta Udalbatzako Idazkaritzak, edo beren ordezko legalek, bertan izan beharko dute.

2. Saioak, esandako egun eta orduan, lehen deialdian egingo dira. Deialdiko ordutik hogeita hamar minutu pasa ondoren ez balego aurreko idatzatian zehaztutako quorumik, automatikoki saioa bigarren deialdian egingo da lehen deialdia baino bi lanegun geroago, lehenengo deialdiaren ordu berean, bigarren deialdiko parte hartzaileak legezko kide kopuruaren herena baino gutxiago ez badira behintzat. Orduan ere ez balego behar besteko quorumik, Lehendakaritzak deialdia baliogabetu egingo du, eta gai-zerrendako aztergaiak aurrerago egingo den lehen saiorako, ohikoa nahiz ezohikoa izan, utziko ditu.

3. Udaleko legezko zinegotzi kopurua denbora pasa ahala aldatuko balitz, herena kopuru horrena izango da, eta gutxieneko quorumeko kide kopurua automatikoki aldatuko da.

2. ATALA. Deialdia eta gai-zerrenda

### 54. artikulua. Deialdia. Epeak. Dokumentazioa bidaltzea.

1. Alkatetzari dagokio, Udalbatza Osoko Lehendakari den aldetik, Osoko Bilkuraren saio guztien deialdiak egitea, automatikoki egiten diren deialdienak izan ezik.

2. Hala ohiko saioak nola presakoak ez diren ezohikoak, gutxienez, bi lanegun lehenago deitu behar dira.

3. Deialdia zinegotziei jakinaraziko zaie, eguneko gai-zerrendarekin eta onartu behar diren aurreko saioetako akten zirriborroekin batera, edozein baliabide erabilita, hau da, nahiz posta arruntez beren helbidera agiriok igorriz, nahiz modu telematiko edo informatikoz, posta elektroniko bidez, alegia, nahiz, eskura. Zinegotziek idatziz eskatu beharko dute zein modu nahi luketen. Edonola ere, edozein izanik erabilitako modua, zinegotziek jakinarazpena jaso dutela ziurtatuta gelditu beharko da.

### 55. artikulua. Gai-zerrenda.

1. Bileren gai-zerrenda Alkatetza-Lehendakaritzak finkatuko du Idazkaritzaren laguntzaz.

2. Udalbatza Osoko ohiko bileretako gai-zerrendak berezko ezaugarriak dituzten bi zatitan banatzen dira. Gai-zerrendako lehen zatiak izaera erabakigarria du. Bertan izango dira aktak onartzea, aurrez irizpena emana duten administrazio-espedienteak aztertzea eta, kasuan-kasuan, eguneko gai-zerrendatik kanpo sartu diren gaiak. Bigarren zatiak gobernuko organoak fiskalizatzeko izaera du. Bertan sartzen dira Udalbatzako edozein kidek egin ditzakeen eskaera eta galderak, eta Erregelamendu honetan ezarri diren kontrol mekanismoak.

### 56. artikulua. Zinegotzien eskura dagoen dokumentazioa.

Gai-zerrendako gaien eztabaidarako eta, hala denean, bozketarako oinarri diren agiri guztiak zinegotzi guztien eskura izango dira Udalbatzako Idazkaritzan deialdia egin eta hurrengo egunetik aurrera. Edozein zinegotzik izango du aztertzeko aukera, baita dokumentu jakinen kopiak lortzekoa ere, baina originalak ezingo dira agerian jarrita dauden tokitik atera, Erregelamendu honetako 12. artikuluak ezarritakoa aplikatuko delarik.

3. ATALA. Eztabaidak


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

### 57. artikulua. Udalbatzako kideen kokapena.

1. Zinegotziak kide diren Udal Taldeen arabera eseriko dira batzar aretoan. Taldeen kokapen ordena Alkatetza-Lehendakaritzak ezarriko du, bozeramaileei entzun ondoren, eta lehentasuna izango du boto gehien jaso duen zerrendako zinegotziek osatzen duen Taldeak. Dena den, kokapenak botoak emateko eta zenbatzeko lanak erraztea izango du helburu.

2. Atxiki gabeko kideak Alkatetza-Lehendakaritzak esandako tokian eta elkarren ondoan eseriko dira batzar aretoan.

### 58. artikulua. Ohiko Bilkuren garapena.

1. Ohiko bilkuren hasieran Lehendakariak galdetuko du ea zinegotziren batek deialdiarekin batera banatutako aurreko bileretako aktei buruzko oharrik egin nahi duen. Oharrik ez balego, onartuak izango dira; oharren bat balego, eztabaidatu eta behar diren zuzenketak erabakiko dira.

2. Inolaz ere ezingo dira hartutako erabakiak sakonean aldatu; oker materialak edo egitatezkoak bakarrik aldatu ahal izango dira.

3. Akta bakoitzean, aurrekoaren irakurketa eta onarpena aipatzerakoan jasoko dira egindako oharrak eta zuzenketak.

4. Ohiko bilkuretan, gai-zerrendako gaiak aztertu ondoren eta galdera eta eskaerekin hasi aurretik, Lehendakariak galdetuko du ea talde politikoren batek deialdiarekin batera banatutako eguneko gai-zerrendan ez dagoen presako gairen bat atera nahi duen Udalbatza Osoko bilkuran eztabaidatzeko; gai honek ezingo du galderak eta eskaerak puntuan sartzeko modukoa izan.

5. Presako gaia aurkezteko, proposamena egin duen Udalbatzako kideak erabaki-proposamena duen zatia soil-soilik irakurriko du. Aurkezpen honek ez du eztabaidarik onartuko. Presakako adierazpena Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoez onartu beharko da.

6. Ezohiko bilkuretan ezin izango da eguneko gai-zerrendan berariaz jaso ez den gairik aztertu.

7. Ezohiko bilkuretako deialdian jasotzen ez ziren gaiei buruz hartutako erabakiak baliogabeak izango dira, baita ohiko bilkuretan beraien gai-zerrendetan ez zeuden gaiei buruz hartutakoak. Salbuespena izango da aurrez presakako aitorpena egin eta apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 47.2 artikuluan arautzen den gehiengoz onartzen denean.

### 59. artikulua. Gai-zerrendako puntuen azterketa.

1. Gai guztiak gai-zerrendan dauden hurrenkera berean eztabaidatu eta bozkatuko dira. Dena den, gai bat onartzeko gehiengo berezi bat behar bada, eta gai-zerrendan dagokion unean gehiengo hori ezin bada lortu, Alkatetza-Lehendakaritzak gaien hurrenkera alda dezake, baita gai hori albo batera utzi ere.

2. Gai-zerrendako puntu bakoitzaren eztabaida hasteko, proposamena irakurri edo ahoz azalduko da. Irakurketa zein azalpenaren ondoren inork ez badu hitza eskatzen, proposatutako gaia bozkatzeari ekingo zaio.

### 60. artikulua. Ordena arazoak. Alde batera edo mahai gainean uzteko proposamena. Udaleko Idazkaritzaren eta Kontuhartzailetzaren txostenak.

1. Zinegotziek eztabaidako edozein unetan eska dezakete hitza ordena arazo bat azaltzeko, horretarako ezartzea eskatzen duten araua argudiatuz. Lehendakariak dagokiona erabakiko du, horiekin eztabaidarik sortu gabe.

2. Zinegotzi orok eska dezake, eztabaida bitartean, gai-zerrendan dagoen espedienteren bat alde batera uzteko, espediente horri dokumentuak edo txostenak gehitzeko; espediente hori mahai gainean gelditzea ere eska dezake, eta eztabaida hurrengo bilerarako atzeratuko litzateke. Batean zein bestean, eskaera hori eztabaida amaitu ondoren, eta proposamenaren sakoneko edukiera bozkatu aurretik, bozkatuko da. Eskaera gehiengo soilez onartuko balitz, ez da erabaki-proposamena bozkatuko.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

3. Alkatetza-Lehendakaritzak ere gai-zerrendako edozein gai utz dezake alde batera edo mahai gainean. Horrelakoetan, Alkatetza-Lehendakaritzak hartutako erabakia bozkatu gabe, gaia alde batera utziko da eta hurrengo ohiko bilkurako gai-zerrendan sartuko da.

4. Idazkaritzako eta Kontuhartzailetzako ardura duten funtzionarioek Lehendakariak eskatutakoan parte hartu ahal izango dute aholkularitza teknikoa emateko edo kontzeptuak argitzeko. Eztabaidatzen ari diren gaietan auziren baten legezkotasuna zalantzan badago edo aurrekontuetan eragina izan badezake, funtzionario horiek hitza eska diezaiokete Lehendakariari Udalbatzari aholkua emateko. Udal Kontuhartzailetzak ez du Udalbatza Osoko bilkuretara joan beharko Alkatetza-Lehendakaritzak betebehar horretatik kasuan kasu salbuesten badu aztertuko diren gaiak haren eginbeharrei ez dagozkielakoan. Idazkaritzari edo Kontuhartzailetzari gai-zerrendan ez dauden gaiei buruzko aginduzko txostenak eskatzen zaizkienean, une berean emateko gai ez badira, gai horien azterketa atzeratzeko eskatu beharko diote Lehendakariari, eta mahai gainean geldituko dira hurrengo bilerarako. Eskaera hau onartuko ez balitz, Idazkaritzak berariaz jasoko du aktan.

*61. artikulua. Bilkuretako gizalegea.*

1. Alkatetza-Lehendakaritzak zaindu behar du bileretako gizalegea eta ordena publikoa, kasuan kasu bere ustez egokiak diren neurriak hartuz.

2. Alkatetza-Lehendakaritzak ohartarazpena egingo die zinegotziei honako kasuetan:

a) Udalbatza, bere kide, Erakunde publiko edo beste edozein gizabanako edo erakunderentzat iraingarriak diren hitzak edo kontzeptuak erabiltzean.

b) Etenak eraginez, edo beste edozein eratara, bileretako ordena nahastean.

c) Hitzik eman gabe edo hitza kendu ondoren, hitz egiten saiatzen direnean.

Bilera berean ordena gordetzeko hirugarren ohartarazpenean –eta bigarrenean hirugarrenak izan ditzakeen ondorioak azaldu ondoren– Alkatetza-Lehendakaritzak bilera gelatik joateko agindu diezaioke zinegotziari, eta bidalketa gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu.

3. - Bilkurara bertaratutako ikus-entzuleek ordena nahasiko balute, duintasunik gabe jokatuko balute edo onespen edo gaitzespenik azalduko balute, Alkatetza-Lehendakaritzaren erantzukizuna izango da aretoa erabat edo neurri batean husteko agindua ematea eta bilerarekin aurrera jarraitu edo ez erabakitzea.

4. Aurreko puntuan azaldutakoa edo beste edozein arrazoi dela medio, bilera etengo balitz, Alkatetza-Lehendakaritzak bilera bukatutzat jo dezake; horrela izanez gero, deialdi berri bat egingo da batez ere aztertu gabe gelditu diren gaiak aztertzeko.

*62. artikulua. Abstenitu beharreko kasuetan bertan ez egotea.*

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 76. artikuluan jasotako kasuetan, Udalbatzako kideren batek gai bat eztabaidatzeari eta bozkatzeari uko egin beharko balio, aretoa utzi beharko du gaia eztabaidatu eta bozkatu artean, ez bada Udalbatzako kide bezala izan duen jokaera aztertu behar dela; halakoetan, bertan gelditu eta bere burua defendatzeko eskubidea izango du.

4. ATALA. Bozketak

*63. artikulua. Bozketa egiteko baldintzak.*

1. Gai bat eztabaidatu ondoren, bozketari ekingo zaio.

2. Bozketa hasi aurretik, Alkatetza-Lehendakaritzak argi eta hitz gutxitan azalduko du zer proposatzen den bozkatzea.

*64. artikulua. Bozketa-motak.*

1. Bozketak arruntak, izendunak eta isilpekoak izan daitezke.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

— Bozketak arruntak dira baldin eta adostasuna, desadostasuna edo abstentzioa ohiko zeinuen bitartez adierazten bada.

— Bozketak izendunak dira baldin eta, taldeka eta aukeratuak izan zirenen zerrendako kontrako ordenan, zinegotzi guztien izena esaten bada eta bakoitzak «bai», «ez» edo «abstenitu egingo naiz» erantzuten badu, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean; erantzuten azkena Lehendakaria izango da beti.

— Isilpeko bozketak Udalbatzako kide bakoitzak txartel batean bere botoa eman eta kutxa edo poltsa batean sartuz egiten dira.

2. Bozketak iraun bitartean, egintza-batasunaren izenean, Lehendakariak ez dio inori hitzik emango eta Udalbatzako kideek ezingo dute aretora sartu edo aretotik irten.

3. Bozketa hasiz gero, ezingo da inolaz ere eten.

4. Bozketa arrunta amaitutakoan, Alkatetza-Lehendakaritzak azalduko du erabakitakoa.

5. Bozketa izenduna amaitu bezain laster, Idazkaritzak zenbatuko ditu emandako botoak eta emaitza ahots goraz esango du; ondoren, erabakitakoa Alkatetza-Lehendakaritzak aldarrikatuko du.

**65. artikulua. Bozkatzeko sistema aukeratzea.**

1. Bozkateko ohiko sistema bozketa arrunta izango da.

2. Bozketa izenduna egiteko, Udal Talde batek edo atxiki gabeko kide batek eskaera egin eta Udalbatza Osoak bozketa arruntean eta gehiengo soilez onartu beharko du.

3. Bozketa arrunta egiten denean, zinegotzi orok eska dezake bere bozketaren berri aktan agertzea, hartutako erabakien aurka egiten bada hura egiaztatzeko.

4. Konstituzioko 18.1 artikuluak aipatzen duen herritarren funtsezko eskubidean eragina izan dezaketen gaietan, eztabaida eta bozketa isilpekoa izan daiteke legezko gehiengo osoz hala erabakitzen denean. Izendatzeko eta kargutik kentzeko bozketak isilpekoak izango dira, zentsura mozioetan izan ezik.

5. Alkatetza-Lehendakaritzari ezarritako zentsura-mozioen eta konfiantza-galdekizunen bozketak publikoak eta izendunak izango dira.

*66. artikulua. Erabakiak hartzeko beharrezko gehiengoak.*

1. Udalbatza Osoaren erabakiak bilkuran dauden kideen gehiengo soilez hartuko dira orokorrean. Gehiengo soila aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnean lortzen da. Berdinketa bada, bigarren bozketa bat egingo da. Bigarren bozketa horretan ere berdinketa badago, Alkatetza-Lehendakaritzaren kalitatezko botoak erabakiko du bozketa.

2. Gehiengo osoa izango da aldeko botoak Udalbatzako legezko kideen erdiak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa beharko da tokiko araubideari buruzko legedian ezarritako kasuetan eta baita, hala izanez gero, izaera sektoriala duen legedian ezarritakoetan ere. Gehiengo osoa behar denetan berdinketa gertatzen bada, Alkatetza-Lehendakaritzaren botoa ez da kalitatezkoa izango.

3. Hauteskundetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluak lehenengo idatzatian ezarritakoari jarraituz, izendatzeko hautagai edo ordezko gehiagorik ez balego, indarrean dagoen legedian aurreikusitako bertaratzeko eta bozkatzeko quorumak automatikoki Udalbatzan izatez gelditzen diren kide kopuruan oinarrituko dira, aipatutako hauteskunde legean ezarritakoarekin bat etorriz.

4. Zinegotzien botoa pertsonala eta eskuordeezina da.

*67. artikulua. Botoa azaltzeko txanda.*

Erabakia aldarrikatu ondoren, Udalbatzako kideek botoa azaltzeko txanda eska diezaiokete Lehendakaritzari.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

### 68. artikulua. Terminologia.

Bileren garapenerako eta Udalbatzako kideen partehartzeen izaera zehazteko, terminologia hau erabiliko da:

1. Irizpena: Batzorde Informatzaileak espedientea aztertu ondoren, Udalbatza Osoko bilkurara eramaten den proposamena.

2. Proposamena: Gai-zerrendan sartu den gai bati buruz, baina inongo Batzorde Informatzaileren irizpenik gabe, Udalbatza Osoko bilkurara eramaten den proposamena. Azalpen zati bat eta erabaki beharreko beste zati bat izango ditu. Proposamenak ezingo dira ez eztabaidatu ez bozkatu, aurrez gaia gai-zerrendan sartu izana berretsi arte.

3. Mozioa - Edozein Udal Talde Politikok edo Udalbatzako kidek gai-zerrendan sartu gabe Udalbatza Osoko bilkurari zuzentzen dion proposamena. Mozio horiek ohiko bilkuretan besterik ezingo dira aurkeztu.

4. Zuzenketa-proposamena: Batzorde Informatzaile batek eman duen irizpen baten aurrean, hori aldatzeko batzordeko kide baten ekimena da. Batzordean bere berri jakin eta hurrengo egunetik irizpenarekin batera joan beharko du, proposamena egin duenak berariaz horrela eskatuta; eta batzorde berean emango zaio irizpena. Horrelakoetan, dagokion proposamenaz gain, egindako zuzenketa-proposamena eta horri buruzko Batzorde Informatzailearen irizpena bidali beharko dira. Hala, irizpena duen proposamena nola zuzenketa-proposamenak irakurri eta eztabaidatu ondoren, bidezkoa bada, zuzenketak bozkatzeari ekingo zaio, zuzenketa partzialekin hasita. Zuzenketa partzial bat onartuko balitz, testu hori azkenean Osoko Bilkurak bozkatuko duenari erantsiko zaio. Zuzenketa partzialak bozkatu ondoren, testu nagusia bozkatuko da, zuzenketa partzialak erantsita edo ez. Testua onartzen bada, aurkeztutako osoko zuzenketak ezerezean geratuko dira. Osoko zuzenketak aurkeztu diren ordena berberean bozkatuko dira. Osoko zuzenketa bat onartzen bada, besteak ezerezean geratuko dira.

5. Proposamen alternatiboa: Gaia eztabaidatzen hasi aurretik, irizpen, presako proposamen edo mozio bat aldatzeko Udalbatzako kideren batek aurkeztutako proposamena.

Irizpena, presako proposamena edo mozioa azaldu ondoren, proposamen alternatiboak azalduko dira, aurkeztu direnen hurrenkera jarraituz. Gero, bozkatu egingo dira proposamen alternatiboak, aurkeztu direnen hurrenkerari doi-doi jarraituz; lehenengo aurkeztu dena bozkatuko da eta, ez bada onartzen, hurrengoekin jarraituko da. Bukaeran, proposamen alternatiborik ez bada onartu, hasierako irizpen, presako proposamen edo mozioa bozkatuko da. Proposamen alternatibo bat onartzen bada, hurrengoak ezerezean geratuko dira, hasierako irizpen, presako proposamen edo mozioa bezala.

6. Eskaria – Udal gobernuko organoei zuzentzen zaien jarduteko-proposamena da. Udalbatza Osoko bilkurara zuzendutako eskariak eztabaidatu daitezke, baina inolaz ere ez bozkatu. Eskariak Udalbatzako kide guztiek egin ditzakete, baita Udal Taldeek ere, bozeramaileen bitartez. Eskariak Udalbatza Osoko Bilkurari edo edozein udal gobernuko organori zuzenduko zaizkio, eta ahoz nahiz idatziz egin daitezke. Eskaria idatziz egin bada, eskaria egin duenak defendatu beharko du dagokio ohiko bilkuran, Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu ondoren. Ez bada defentsa hori egiten, eskaria ezerezean geratuko da; dena den, hurrengo bileretan aurkeztu ahal izango da. Aurkeztutako eskariak, hala ahozkoak nola idatzizkoak, Udalbatza Osoko Bilkuran eztabaidatuko dira, baina beren konplexutasuna, informazio teknikoaren beharra edo beste arrazoiren bat dela eta, Alkatetza-Lehendakaritzak dagokion Arlora zuzentzea ere erabaki dezake; horrela bada, Arloak hilabete bateko epea izango du eskaria egin duenari erantzuteko.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

7. Galdera – Udalbatza Osoko Bilkuran gobernu organoei egindako edozein galdekizuna da. Udalbatzako edozein kidek egin ditzake galderak, baita Udal Taldeek ere beren bozeramaileen bitartez. Galderak ahoz nahiz idatziz egin daitezke. Galdera idatziz egin bada, galdera egin duenak defendatu beharko du dagokio ohiko bilkuran, Sarrera Erregistroan aurkeztu ondoren. Ez bada defentsa hori egiten, galdera ezerezean geratuko da; dena den, hurrengo bileretan aurkeztu ahal izango da. Bilera batean ahoz egindako galderak bileran bertan erantzungo dira, baina beren konplexutasuna, informazio teknikoaren beharra edo beste arrazoiren bat dela eta, Alkatetza-Lehendakaritzak dagokion Arlora zuzentzea ere erabaki dezake; horrela bada, Arloak hilabete bateko epea izango du galdera egin duenari erantzuteko. Idatziz egindako galderak hartzaileek bilera berean erantzungo dituzte edo, idatziz, Erregistro Orokorrean aurkeztu direnetik hilabete bateko epean. Dena den, galderak ahoz nahiz idatziz egin, galdera egin duenak horrela berariaz adierazi badu, erantzuna idatziz emango da. Horretarako, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu denetik, hilabete bateko epea izango da.

## II. KAPITULUA. -TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA

### *69. artikulua. Bilerak. Deialdia. Gai-zerrenda.*

1. Tokiko Gobernu Batzarreko ohiko bilerak Alkatetza-Lehendakaritzak Dekretu bitartez ezarriko duen maiztasunez eta erabakiko dituen egun eta orduetan egingo dira. Ezohiko edo presako bilerak, berriz, Alkatetza-Lehendakaritzak horrela erabakitzean. Bilerak Udaletxean izango dira, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Dena den, Alkatetza-Lehendakaritzak edonoiz bildu ahal izango du Tokiko Gobernu Batzarra bere iritzia ezagutu nahi badu edo dagozkion eskumenen jardunean erabakiak hartu aurretik laguntza eskatzeko. Bilera horiek ez dute izaera erabakigarririk, eta ez dago eztabaidatutakoa jaso edo akta egin beharrik; ez da, beraz, beharrezkoa izango Idazkaritza han izatea. Dena den, Alkatetza-Lehendakaritzak eska dezake noiz edo noiz Idazkaritza bileran egotea.

### *70. artikulua. Bertaratze quoruma.*

1. Tokiko Gobernu Batzarraren eraketa baliozkoa izateko, hiru batzarkide egon behar dira bertan.

2. Alkatetza-Lehendakaritzak bere zentzuzko iritziz zuzendu eta bideratuko ditu Tokiko Gobernu Batzarreko eztabaidak.

3. Tokiko Gobernu Batzarreko erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira beti. Berdinketa izango balitz, Alkatetza-Lehendakaritzak erabakiko luke kalitatezko botoarekin.

### *71 artikulua. Tokiko Gobernu Batzarreko bileren publikotasuna.*

Tokiko Gobernu Batzarreko bilerak ez dira publikoak izango. Hala ere, Alkateak, gaiaren garrantzia ikusita, beste udalkide guztiei edo zenbait interesduni bertaratzen uztea erabaki ahal izango du, Dekretu bidez. Ebazpen horretan zein baldintzatan bertaratu daitezkeen zehaztuko da. Funtzionariak bileretara joan ahal izango dira Alkateak aldez aurretik bertaratzeko eskatuz geroz.

## III. KAPITULUA. – UDALBATZAKO GAIEN BATZORDE INFORMATZAILEA(K) ETA KONTU BATZORDE BEREZIAREN FUNTZIONAMENDUA.

### *72. artikulua. Lehendakaritza eta idazkaritza.*

1. Alkatetza-Lehendakaritza edo eskuordetzea jaso duen batzordeko kide bat izango da -Batzorde Informatzaileko buru, eta Idazkaritza betekizuna Udalbatzako Idazkaritzak eskuordetu eta izendatutako teknikariek izango dute.

2. Alkatetza-Lehendakaritza edo eskuordetzea jaso duen batzordeko kide bat izango da Kontuetarako Batzorde Bereziko buru, eta Idazkaritza betekizuna Udalbatzako Idazkaritzak eskuordetu eta izendatutako teknikariek izango dute.

### 73. artikulua. Publikotasuna – Irizpenak – Bilerak.

1. Batzorde informatzaileen eta Kontuetarako Batzorde Bereziaren bilerak eta eztabaidak ez dira publikoak izango.

2. Batzorde hauetako bileretan soilik batzorde horietako kideek eta udal taldeetako edo atxiki gabeko zinegotzien ordezkariek har dezakete parte, eta baita Lehendakaritzak bertaratzeko eskatu dien Eskuordetutako Zinegotziek eta funtzionarioek eta teknikoek.Gai zehatzak aztertzeko Alkateak proposatu dezake pertsona interesdunak bertan egon daitezen.

3. Batzorde Informatzailearen irizpenak aginduzkoak eta ez lotesleak dira.

Irizpenak emateko orduan, bozketa, bilera bakoitzera etorritakoen artean gehiengo arruntez burutuko da.

4. Batzorde Informatzaileak/ek hura/horiek sortzerakoan Udalbatza Osoak ezarri zuen maiztasunez egingo ditu(zte) ohiko bilerak, Alkatetzak edo dagokion Lehendakaritzak ezarritako egun eta orduetan. Alkatetzak edo dagokion Lehendakaritzak ezohiko edo presako bilerak dei -ditzake.

5. Bilerak Udaletxean izan edo udalaren beste edozein aretotan egin daitezke.

### 74. artikulua. Deialdia.

1. Kontu Batzorde Berezia gutxienez lanegun bat lehenago deituko ditu Lehendakaritzak.
2. Presakako arrazoiengatik gai-zerrendan ez dauden gaiak ere azter daitezke, betiere presakoak direla onartzen bada bertaratutako kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

### 75. artikulua. Quoruma.

1. Bilerak baliozkoak izateko hiru batzordekidek bertan izan behar dute.

2. Dena den, bertan derrigorrez egon beharko dute Lehendakaritzak –edo bere ordezko legalak– eta Batzordeetako Idazkaritzak –edo bere ordezkari legalak–.

### 76. artikulua. Udalbatza Osoko Bilkura jarduteko arauak ordezko gisa ezartzea.

Batzordeen jardueran aurreikusi ez diren kontuetan, eta beti dagozkien berezitasunak kontuan hartuta, Udalbatzako arauak ezarriko dira.

### 77. artikulua. Alkatetza-Lehendakaritzaren integrazio ahalmena.

Alkatetza-Lehendakaritzari zuzenbidez izan dezakeen ahalmen guztia ematen zaio Batzorde Informatzaileei eta Kontuetarako Batzorde Bereziari buruzko auzi guztiak interpretatu, argitu eta garatzeko, eta horrela dagokionean, erabilerarekin agerian jar daitezkeen legearen eta arauen hutsuneak betetzeko, baita hobeto gauzatzeko beharrezkoak edo egokiak diren xedapenak emateko ere.

## IV. KAPITULUA. FEDE PUBLIKOA

### 78. artikulua. Aktak jasotzea.

1. Organo kolegiatuetako erabakiak eta pertsona bakarreko organoetako ebazpenak, baliozkoak izateko, dagozkien Akta eta Ebazpen liburutan jaso beharko dira.

2. Liburu ezberdinak egongo dira hauetarako:

a) Udalbatza Osoko aktak.

b) Tokiko Gobernu Batzarreko aktak.

c) Alkatetza-Lehendakaritzaren Ebazpen eta Dekretuak.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

### 79. artikulua. Zaintza Idazkaritzan.

1. Akta eta Ebazpen liburu guztiak Artxiboan edo Udalbatzako Idazkaritza Nagusian gordeko dira, horien buru dagoen funtzionarioaren ardurapean.

2. Liburuak ezingo dira inondik inora Udaletxetik atera. Beren edukia gordetzen diren toki berean ikusiko da edo, bestela, ziurtagiri eta lekukotasunen bidez egingo da.

### 80. artikulua. Akten edukia eta transkripzioa.

1. Akten beharrezko ezaugarri eta edukiak, eta akta eta ebazpen liburuak nola eraman, toki araubideari buruzko legedian ezartzen dira.

2. Udalbatza Osoaren, Tokiko Gobernu Batzordearen Aktak zein Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretuak zein batzorde aktak Udalaren orri tinbratuetan jasoko dira.

3. Akta Liburuek Idazkaritzaren eta Alkatetza-Lehendakaritzaren –edo legez ordezkatzen dituztenen– zigilua eta sinadura izan behar dituzte.

## IV. TITULUA

## HERRITARREN INFORMAZIOA ETA PARTE HARTZEA

## I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

### 81. artikulua. Parte hartzeko eta informazioa lortzeko moduak.

1. Udalak bere jardueraren gaineko informazio zabala emango du eta herriko bizitzan herritarrek parte hartzea bideratuko du.

2. Parte hartze hori bideratzeko Erreglamentu bat onartuko da eta Udalaren barne Erregelamendu Organikoaren ataltzat joko da eta ondorioz, horren baldintza eta prozeduren arabera izapidetu beharko da.

3. Parte hartzeko ezartzen diren modu, baliabide eta prozedurek ezin izango dituzte gutxitu legearen arabera organo erabakitzaileek dituzten erabaki- ahalmenak.

## II. KAPITULUA. -ORGANO KOLEGIATUEN BILERETAKO PUBLIKOTASUNA

### 82. artikulua. Udalbatza Bilkuren publikotasuna.

1. Udalbatza Osoko Bilkurak publikoak dira, tokiko erregimenari buruzko legedian aurreikusitako egoeretan izan ezik.

2. Aldiz, ez dira publikoak Tokiko Gobernu Batzarreko bilerak, Batzorde Informatzaileetakoak, Kontu Batzorde Berezikoak eta ezta Batzorde Berezietakoak ere, Erregelamendu honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Hala ere, gai jakin bati buruzko iritzia edo txostena jasotze aldera soilik, elkarte edo erakundeetako ordezkariak deitu ahal izango dira, bai eta udaleko zein kanpoko teknikariak ere, betiere horien aholkularitza egokitzat jotzen bada.

3. Udalbatza Osoko Bilkuretako soinua eta irudiak hedatzeko, megafonia sistemak edo telebistako zirkuitu itxiak instalatu ahal izango dira. Nolanahi ere, bileretako gizalegerako agintea erabiliz, Alkatetza-Lehendakaritzak erabakiko du horiek erabili ala ez, eta horretarako zein betebehar eta baldintza jarri.

### 83. artikulua. Udalbatza bilkuren deialdien eta gai-zerrenden publikotasuna.

1. Udalbatza Osoko bilkuren deialdiak eta gai-zerrendak udalaren Iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko dira.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

3. Udalak jendaurrean jarriko du Udalbatza Osoaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren akordio guztien edukia, udalaren web orrian argitaratuz aktak, beti ere, udal erregimenaren oinarri-legeak, apirilaren 2ko 7/1985 legeak, 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**XEDAPEN GEHIGARRIA.**

Erreglamendu honetan espreski aurrikusi ez den guztirako, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, alegia, Toki edo udal-erakundeen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko erreglamenduak xedatutakoa izango da ezargarri.

**AZKEN XEDAPENA.**

Aiako udalaren barne erreglamendu organiko hau indarrean jarriko da, legezko eran izapidetu ondoren, edukia oso-osorik Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratu eta 20 egun naturaleko epea igaroz geroztik, beti ere, toki-erregimenaren oinarri-legeak, hau da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak, 49 eta 70.2 artikuluetan, xedatutakoari jarraikiz.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

**JAUREGI TABERNA-JATETXEA ALOKATZEKO KONKURTSOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PLEGUAK.**

1.- Plegu hauen xedea, Gozategi Enparantza 9 zenbakidun eraikinaren behe solairuan kokatuta dagoen Taberna-Jatetxe jarduera eta bertako ondasun mobiliarioaren alokairua arautzea da.

2.- Esleipendunak, jarduera aurrera eramaterakoan, bertako instalakuntza eta ondasunen erabilera arduratsua eta egokia izan beharko du.

3.- Esleipendunaren kargu izango dira, ondasunen konponketak eta alokairu kontratuaren amaieran, aipatutako ondasunak era egokian uztera behartuta dago. Erabilera egokiaren ondorioz elektragailu edo bestelako tresneria aldatu behar izanez, gero, Udala eta maizterrak erdibana ordainduko dute, elkar adostuz gero.

4.- Interesdunek beraien proposamena kartazal batean aurkeztu beharko dute:

- Kanpokaldean “Jauregi Taberna-Jatetxearen alokairua” testua eramango du eta barruan beste dokumentazio hau:
    a) Lizitatzailearen N.A.N. edo sozietate bat izanez gero, sozietate osaketako eskrituraren kopia bat.
    b) Lizitatzailearen adierazpena, non ziurtatzen duen, ez dagoela Estatuko Kontratu Legeak ezarritako debekuen artean.
    c) Alokairu kontratuaren prezioa onartzen duen egiaztagiria.
    d) Bere esperientzia jasotzen duen Memoria eta emango duen zerbitzuaren deskribapena (egutegia, zerbitzu mota, e.a.).

Interesdunek beraien proposamenak Udal bulegoetan aurkeztuko dituzte bulego orduetan.

Proposamenak aurkezteko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 20 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Iragarkia honen berri Udal Iragarki Taulan iragarriko da, non ezarriko den eskaerak aurkezteko azken eguna zein izango den.

Proposamenen irekiera, aurkezpen epea igaro eta hurrengo asteazkeneko arratsaldeko 6etan egingo da Udal Batzar aretoan.

5.- Ez da behin behineko fiantzarik eskatuko. Konkurtsoa erabaki eta esleipendunarekin kontratua sinatzerako, 4000 eurotako fidantza bat ezarriko beharko du. Kontratuak dirauen bitartean, maizterrak kontratua utziko edota indargabetuko balu, ezarritako fidantza galduko luke, ondoko ñabardurak kontutan hartuta beti ere:

- kontratua bertan behera uzteko eskaera aurrez abisatuz gero, ondoko kenketa aplikatuko zaio abal osoari:
    - 5 hilabeteko aurrerapena 3.500 euro
    - 4 hilabeteko aurrerapena 3.000 euro
    - 3 hilabeteko aurrerapena 2.000 euro
    - 2 hilabete edo gutxiagokoa 500 euro


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

- jarduera aurrera eraman ahal izateko ezintasuna sortzen dion gaisotasun iraunkorra edo familia egoera berezia sortuz gero edo bestelako arrazoi pisutsuak (Gobernu Batzordeak erabakiko luke) emango balira, maizterrak jarritako fidantza osoa jasoko luke, aurreko ñabardurak ezarri gabe.

6.- Proposamenak aztertu ondoren, mahai kontratatzaileak bere proposamena Gobernu Batzarrari luzatuko dio, hamabost egun naturaletako epean, honek behin betiko esleipena egin dezan.

Mahai kontratatzaileak aurkeztutako dokumentazioan gabeziak atzemanez gero, bost egun naturaleko epean, gabeziak ekiditzeko aukera eman diezaieke.

Behin betiko esleipena jakinerazterakoan, esleipendunari kontratua sinatzeko egunerako behin betiko fidantza jarri dezan eskatuko zaio, Udalak ezarritako moduan.

7.- Kontratu honen prezioa BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA EURO ETA HOGEITAMAR ZENTIMO (551,30 E) da, BEZ kanpo.

8.- Alokairuaren ordainketa, Udalak jakinerazitako moduan egingo da, hiruhilabeteko lehenengo hilabetean.

Kontratu honen prezioa, urte berriarekin batera (2010. urtea), Euskal Autonomi Erkidegoko KPI-aren arabera egokituko da.

9.- Kontratu honen iraupena bost urtetakoa izango da, esleipenaren jakinerazpen hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak kontratua bertan behera utziko balu, bostgarren puntuan adierazitakoa aplikagarri izango zaio.

10.- Esleipen prozesuaz arduratuko den Kontratazioa Mahaia honela osatuko da:

- Alkatea edota honek izendatutako zinegotzi bat
- Bi zinegotzi (alderdi bakoitzeko bana)
- Udal aparejadorea eta idazkaria

11.- Kontratuaren esleipenerako kontutan izango dira oinarriak honako hauek dira:

- Antzeko jardueretan egindako lanak....................................... 0 - 10 puntu
- Lokalean hobekuntzak egiteko proposamenak.......................... 0 – 5 puntu
- Urtean zeharreko zerbitzua (irekiera urtean zehar)...................0 – 5 puntu

12.- Lizitazio honi ezargarri izango zaio jarraian aipatutako araudia, espreski plegu hauetan adierazi ez diren arloetan:

- Udal Korporazioen Zerbitzu Erreglamentua
- 30/2007 Legea, urriak 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituena.
- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Udal Erregimenaren oinarrizko legea.
- 781/86 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Udal Erregimenaren Testu Bateratua.

HERRIGUNEA ETA ANDATZA AUZO ARTEAN UR HORNIKUNTZA SAREA LUZATZEKO DIRU LAGUNTZA DELA ETA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GARAPEN IRAUNKOR SAILAREKIN HITZARMENA

**ERANSKINA / ANEXO**

Donostian, 2008ko ...aren ..a
San Sebastián, a .. de .. de 2008

**ELKARTU DIRA**

Alde batetik, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko foru diputatu **CARLOS ORMAZABAL URBIZU** jauna.

Eta bestetik, Aiako Udaleko alkate **IGOR ITURAIN IBARGUREN** jauna, erakunde horren legezko ordezkaria, Batzorde Nagusiak .......ko ....aren ..an bileran hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariazko baimena jaso duena.

Esku hartzaileek lankidetza hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta horretarako, honako hau,

**REUNIDOS**

De una parte, el Ilmo. Sr. **D. CARLOS ORMAZABAL URBIZU**, en su condición de Diputado del Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Y de otra parte, el Sr. **D. IGOR ITURAIN IBARGUREN** en su condición de Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Aia y en representación legal del mismo, autorizado expresamente para este acto por ......

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de colaboración y a tal efecto

**AZALTZEN DUTE**

Ur azpiegituretan inbertitzeko politikari jarraiki eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundia ---

Bestalde, Aiako Udalak obra publiko hori egingo dela aprobetxatu nahi du udalerrian ura banatzeko eroanbide zati berri bat egiteko, haren trazatua bat datorrelako orain egitekoa den saneamenduaren trazatuarekin; izan ere, .....

**EXPONEN**

Continuando su política de inversión en infraestructura hidráulica y en cooperación con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, la Diputación va a llevar a cabo las obras del Proyecto Actualizado del Saneamiento de Aia, que contemplan la recogida de los vertidos del casco antiguo y del barrio de Andatza de dicho municipio para, tras su conexión con el tramo ya ejecutado en el barrio de Santiago, conducirlos al bombeo de Orio para su tratamiento en la estación depuradora de Zarautz.

Así mismo, es intención del Ayuntamiento de Aia aprovechar la ejecución de dicha obra pública para realizar unos tramos de conducción de distribución de aguas municipales cuyo trazado coincide con el de la conducción de saneamiento, con el objeto de conectar los barrios de Olaskoegia y Andatza con la red de abastecimiento municipal.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

Kontuan hartuta herri onurakoa dela herrilanek gizartean sortzen dituzten afekzioak murriztea -gero eta herritar gehiago ari baitira horretarako eskatzen administrazioek koordinatuta jokatzea- bai eta herrilanen kostu ekonomikoa mugatzea ere -gerora egin beharreko birjarpenak saihestuz-, egoki ikusten da ur banaketako lanak saneamendurako proiektuaren barnean sartzea, bi obrak batera gauzatu daitezen.

Considerando que resulta de interés público tanto aminorar las afecciones de orden social generadas por las obras públicas, aspecto que genera una cada vez mayor demanda ciudadana que reclama la actuación coordinada de las administraciones, como reducir su coste económico evitando posteriores reposiciones de obra, se ha considerado oportuno recoger la obra de distribución dentro del proyecto de saneamiento, para su ejecución simultánea.

Horretarako, bi alderdiek lankidetza hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute, klausula hauei jarraituz.

A tal efecto, ambas partes acuerdan formalizar el presente Convenio de Colaboración conforme a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLAUSULAS**

**Lehena.-** Hitzarmen honen helburua da arautzea zer baldintzatan udalerriko ur banaketako eroanbide zatia Aiako Saneamenduaren Proiektu Eguneratuan egingo den. Lanak kontrata bidez egiteko aurrekontua BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMOKOAB (250.055,55) da.

**Primera**.- Es objeto del presente Convenio regular el régimen de colaboración para la ejecución del tramo de conducción de distribución municipal en el Proyecto Actualizado del Saneamiento de Aia, con un coste de ejecución por contrata de DOSCIENTOS CINCUENTA MIL CINCUENTA Y CINCO EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CENTIMOS (250.055,55) euros.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren bitartez, bere gain hartzen ditu Proiektuaren bitartez egingo diren udalerriko ur banaketako lanak, hasten direnetik hartzen diren arte, eta bera arduratuko da lanen zuzendaritza teknikoaz ere.

**Segunda.-** La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento para el Desarrollo Sostenible, ejecutará las obras de conducción de distribución municipal mediante el señalado Proyecto, desde su inicio hasta su recepción, siendo responsable, asimismo, de la dirección técnica de las obras.

Foru Aldundiaren eginbeharrak dira, era berean, baimenak eskuratzea, lursailak erabilgarri edukitzea eta, oro har, lanak zuzen eta osorik burutzeko bete behar diren tramite guztiak betetzea.

Corresponde asimismo a la Administración Foral la obtención de las autorizaciones, disponibilidad de los terrenos y, en general, el cumplimiento de todos los trámites precisos para la correcta y total ejecución de las obras.

**Hirugarrena.-** Aiako Udalak, berriz, lan horiek finantzatuko ditu, 250.055,55 euroko ekarpen ekonomikoa eginez, 2009ko ordainketa kreditu bati dagokiona, honakoak ordaintzeko: ur banaketako eroanbidea egiteko lanen kostua, gehi gastu orokorrak, onura industriala eta dagokion BEZa.

**Tercera.-** El Ayuntamiento de Aia financiará integramente dicha obra realizando una aportación económica por un importe total de 250.055,55 euros, correspondientes a un crédito de pago de 2009, equivalentes al coste de ejecución material de la conducción de distribución municipal, incrementado con los gastos generales, beneficio industrial e IVA correspondiente.

Aiako Udalak bere gain hartzen duen ekarpena Gipuzkoako Foru Aldundiari ziurtapen edo likidazio bakoitzean ur banaketako lanei dagokien kostua ordainduz gauzatuko du.

El pago de la aportación que compromete el Ayuntamiento de Aia se llevará a efecto mediante el abono a la Diputación Foral de Gipuzkoa del coste imputable al capitulo señalado


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

Ateratzen diren zenbatekoak ordaintzeko hirurogei egun naturaleko epea egongo da, dagokion ziurtapena bidaltzen den egunetik aurrera kontatuta. Epe horren barruan ordaintzen ez diren zenbatekoek berandutza interesak sortuko dituzte epea amaitzen den egunetik aurrera, interesen urteko tipo nominala ekitaldi horretarako legeak diruari jartzen dionaren baliokidea izango delarik.

de la obra de distribución en cada certificación o liquidación. El plazo para el ingreso de las cantidades resultantes será de sesenta días naturales desde la fecha de envío de la certificación correspondiente. Las cantidades no abonadas en este plazo darán lugar, a partir de la finalización del mismo, a intereses de demora con un tipo nominal equivalente al interés legal del dinero que se establezca para dicho ejercicio.

**Laugarrena.-** Hitzarmen honek berarekin dakarren betebehar ekonomikoa betetzeko baldintza hauek gertatu behar dira: behar adinako kreditu hornidura egotea eta, dagokion organo kontu hartzaileak egin beharreko fiskalizazioa egin ondoren, gastuak egiteko baimena edukitzea.

Ondorio horietarako, egin beharreko gastuak egiteko baimena eduki ahala, hitzarmena hobetutzat joko da, edo zati batean, edo osorik.

**Cuarta.-** El contenido obligacional económico derivado de las estipulaciones del presente convenio, queda condicionado a la dotación de los créditos precisos para su cumplimiento y a la autorización de los gastos correspondientes previa la preceptiva fiscalización del órgano interventor respectivo.

A estos efectos el Convenio se considerará perfeccionado bien parcialmente, o en su totalidad, en la medida en que se vaya produciendo la autorización de los gastos correspondientes.

**Bosgarrena.-** Esleipenaren prezioan eragin ekonomikoa duten kontratuko gorabeherek, hala nola baja-koefiziente, likidazio zenbatekoak igotzeak, prezio berrikuspenak, ezarpen tipoak aldatzeak, etab., baita proiektu aldatuak eta proiektu osagarriekin lotutako lanak egiteagatik sortutakoek ere, ondorioa izango dute Aiako Udalak ordaindu beharreko zenbatekoan.

Hitzarmenean hasieran adostutako aurrekontutik gorako gastua irizpide honen arabera finantzatuko da:

- Aiako ur banaketako eroanbideen lanekin zerikusi zuzena duten gastu gehikuntzak Udalak finantzatuko ditu.
- Gainerako gastu gehikuntza guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu.

**Quinta.-** Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación, tales como el coeficiente de baja aplicable, excesos en liquidación, revisiones de precios, cambios de tipos impositivos, etc., así como las derivadas de la ejecución de proyectos modificados y de la ejecución de obras relativas a proyectos complementarios, repercutirán en la aportación a realizar por el Ayuntamiento de Aia.

El incremento de gasto que exceda del compromiso presupuestario inicialmente convenido será financiado conforme al siguiente criterio:

- Corresponderá al Ayuntamiento de Aia financiar aquellos incrementos de gasto que tengan relación directa con la conducción de distribución municipal.
- Corresponderá a la Diputación Foral de Gipuzkoa financiar el resto de incrementos.

**Seigarrena.-** Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Administrazio Publikoen arteko lankidetza hitzarmenetarako erabiltzen den zuzenbide antolamenduak zuzenduko duelarik bere interpretazioa eta garapena.

**Sexta.-** El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan arazorik sortuz gero, Administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak izango du horren ardura.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

**Zazpigarrena.-** Parte hartzen duen alderdi bakoitzak bereganatzen dituen erantzukizunak lankidetza hitzarmen honen bidez bere gain hartzen dituen betebeharrekikoak baino ez dira.

**Séptima.-** Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente Convenio de Colaboración.

**Zortzigarrena.-** Hitzarmena izenpetzen denetik aurrera izango du indarra eta behartasuna parte hartzen duten alderdientzat, eta hitzarmena gauzatzeko kontratatuko diren lanak likidatzen diren arte iraungo du indarrean.

**Octava.-** El Convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación de la contratación de las actuaciones para su ejecución.

**Bederatzigarrena.-** Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia amaitu delako edo hitzarmena hautsi delako.

**Novena.-** El Convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea. Hitzarmena hausten bada, bi alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren, baita horiek egin ondoren ––egingo balira – nola emango diren ere.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

**GARAPEN IRAUNKORREKO FORU DIPUTATUA, /**
**EL DIPUTADO FORAL DE**
**DESARROLLO SOSTENIBLE,**

**Izp./Fdo.: Carlos Ormazabal**

**AIAKO ALKATEA, /**
**ALCALDE DE AIA**

**Izp./Fdo.: Igor Iturain**


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

HERRIGUNEA ETA ANDATZA AUZO BITARTEKO UR HORNIKUNTZA AZPIEGITURAREN FINANTZIAZIOA ETA ESKUALDAKETA DELA ETA, AIAKO UDALA ETA UR KONTSORTZIO ARTEKO HITZARMENA

**ERANSKINA / ANEXO**

Donostian, 2008ko ...aren ..a
San Sebastián, a .. de .. de 2008

**ELKARTU DIRA**

Alde batetik, Aiako Udaleko alkate **IGOR ITURAIN IBARGUREN** jauna, erakunde horren legezko ordezkaria, Udalbatzarrak 2008ko ............... ......eko bileran hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariazko baimena jaso duena

Eta bestetik, Gipuzkoako Urak S.A. enpresako Zuzendari Nagusia den **IÑIGO ELOSEGI .....** jauna.

Esku hartzaileek lankidetza hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta horretarako, honako hau,

**REUNIDOS**

De una parte, el Sr. **D. IGOR ITURAIN IBARGUREN** en su condición de Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Aia y en representación legal del mismo, autorizado expresamente para este acto por ......

Y de otra parte, el Ilmo. Sr. **D. IÑIGO ELOSEGI ...........**, en su condición de Gerente dela empresa Gipuzkoako Urak S.A.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de colaboración y a tal efecto

**AZALTZEN DUTE**

Ur azpiegituretan inbertitzeko politikari jarraiki eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundia Aia Ur zikinak bateratzeko proiektua aurrera eraman nahi duenez, Aiako kaskoa eta Andatza lotuz, ondoren Santio Erreka auzoraino eraman eta Orioko bonbeoaren bitartez Zarautzko depuraraino bideratuz.

Bestalde, Aiako Udala eta Gipuzkoako Urak S.A.-ren nahia da obra publiko hori egingo dela aprobetxatu udalerrian ura banatzeko

**EXPONEN**

Continuando su política de inversión en infraestructura hidráulica y en cooperación con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, la Diputación va a llevar a cabo las obras del Proyecto Actualizado del Saneamiento de Aia, que contemplan la recogida de los vertidos del casco antiguo y del barrio de Andatza de dicho municipio para, tras su conexión con el tramo ya ejecutado en el barrio de Santiago, conducirlos al bombeo de Orio para su tratamiento en la estación depuradora de Zarautz.

Así mismo, es intención del Ayuntamiento de Aia y de Gipuzkoako Urak S.A., aprovechar la ejecución de dicha obra pública para realizar

eroanbide zati berri bat egiteko, haren trazatua bat datorrelako orain egitekoa den saneamenduaren trazatuarekin; izan ere, Olaskoegia eta Andatza auzoak ur sare orokorrari lotuz.

unos tramos de conducción de distribución de aguas municipales cuyo trazado coincide con el de la conducción de saneamiento, con el objeto de conectar los barrios de Olaskoegia y Andatza con la red de abastecimiento municipal.

Kontuan hartuta herri onurakoa dela herrilanek gizartean sortzen dituzten afekzioak murriztea -gero eta herritar gehiago ari baitira horretarako eskatzen administrazioek koordinatuta jokatzea- bai eta herrilanen kostu ekonomikoa mugatzea ere -gerora egin beharreko birjarpenak saihestuz-, egoki ikusten da ur banaketako lanak saneamendurako proiektuaren barnean sartzea, bi obrak batera gauzatu daitezen.

Considerando que resulta de interés público tanto aminorar las afecciones de orden social generadas por las obras públicas, aspecto que genera una cada vez mayor demanda ciudadana que reclama la actuación coordinada de las administraciones, como reducir su coste económico evitando posteriores reposiciones de obra, se ha considerado oportuno recoger la obra de distribución dentro del proyecto de saneamiento, para su ejecución simultánea.

Horretarako, bi alderdiek lankidetza hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute, klausula hauei jarraituz.

A tal efecto, ambas partes acuerdan formalizar el presente Convenio de Colaboración conforme a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLAUSULAS**

**Lehena.-** Hitzarmen honen helburua da arautzea zer baldintzatan udalerriko ur banaketako eroanbide zatia Aiako Saneamenduaren Proiektu Eguneratuan egingo den. Lanak kontrata bidez egiteko aurrekontua BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMOKOAB (250.055,55) da.

**Primera**.- Es objeto del presente Convenio regular el régimen de colaboración para la ejecución del tramo de conducción de distribución municipal en el Proyecto Actualizado del Saneamiento de Aia, con un coste de ejecución por contrata de DOSCIENTOS CINCUENTA MIL CINCUENTA Y CINCO EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CENTIMOS (250.055,55) euros.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren bitartez, bere gain hartzen ditu Proiektuaren bitartez egingo diren udalerriko ur banaketako lanak, hasten direnetik hartzen diren arte, eta bera arduratuko da lanen zuzendaritza teknikoaz ere.

**Segunda.-** La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento para el Desarrollo Sostenible, ejecutará las obras de conducción de distribución municipal mediante el señalado Proyecto, desde su inicio hasta su recepción, siendo responsable, asimismo, de la dirección técnica de las obras.

Foru Aldundiaren eginbeharrak dira, era berean, baimenak eskuratzea, lursailak erabilgarri edukitzea eta, oro har, lanak zuzen eta osorik burutzeko bete behar diren tramite guztiak betetzea.

Corresponde asimismo a la Administración Foral la obtención de las autorizaciones, disponibilidad de los terrenos y, en general, el cumplimiento de todos los trámites precisos para la correcta y total ejecución de las obras.


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Urak S.A. enpresak, berriz, lan horiek finantzatuko ditu, 250.055,55 euroko ekarpen ekonomikoa eginez, 2009ko ordainketa kreditu bati dagokiona, honakoak ordaintzeko: ur banaketako eroanbidea egiteko lanen kostua, gehi gastu orokorrak, onura industriala eta dagokion BEZa.

**Tercera.-** La empresa Gipuzkoako Urak S.A., financiará integramente dicha obra realizando una aportación económica por un importe total de 250.055,55 euros, correspondientes a un crédito de pago de 2009, equivalentes al coste de ejecución material de la conducción de distribución municipal, incrementado con los gastos generales, beneficio industrial e IVA correspondiente.

Gipuzkoako Urak S.A. enpresak bere gain hartzen duen ekarpena Aiako Udalari ziurtapen edo likidazio bakoitzean ur banaketako lanei dagokien kostua ordainduz gauzatuko du. Ateratzen diren zenbatekoak ordaintzeko berrogeitabost egun naturaleko epea egongo da, dagokion ziurtapena bidaltzen den egunetik aurrera kontatuta. Epe horren barruan ordaintzen ez diren zenbatekoek berandutza interesak sortuko dituzte epea amaitzen den egunetik aurrera, interesen urteko tipo nominala ekitaldi horretarako legeak diruari jartzen dionaren baliokidea izango delarik.

El pago de la aportación que compromete a Gipuzkoako Urak S.A. se llevará a efecto mediante el abono al Ayuntamiento de Aia del coste imputable al capitulo señalado de la obra de distribución en cada certificación o liquidación. El plazo para el ingreso de las cantidades resultantes será de cuarenta y cinco días naturales desde la fecha de envío de la certificación correspondiente. Las cantidades no abonadas en este plazo darán lugar, a partir de la finalización del mismo, a intereses de demora con un tipo nominal equivalente al interés legal del dinero que se establezca para dicho ejercicio.

**Laugarrena.-** Hitzarmen honek berarekin dakarren betebehar ekonomikoa betetzeko baldintza hauek gertatu behar dira: behar adinako kreditu hornidura egotea eta, dagokion organo kontu hartzaileak egin beharreko fiskalizazioa egin ondoren, gastuak egiteko baimena edukitzea.

**Cuarta.-** El contenido obligacional económico derivado de las estipulaciones del presente convenio, queda condicionado a la dotación de los créditos precisos para su cumplimiento y a la autorización de los gastos correspondientes previa la preceptiva fiscalización del órgano interventor respectivo.

Ondorio horietarako, egin beharreko gastuak egiteko baimena eduki ahala, hitzarmena hobetutzat joko da, edo zati batean, edo osorik.

A estos efectos el Convenio se considerará perfeccionado bien parcialmente, o en su totalidad, en la medida en que se vaya produciendo la autorización de los gastos correspondientes.

**Bosgarrena.-** Esleipenaren prezioan eragin ekonomikoa duten kontratuko gorabeherek, hala nola baja-koefiziente, likidazio zenbatekoak igotzeak, prezio berrikuspenak, ezarpen tipoak aldatzeak, etab., baita proiektu aldatuak eta proiektu osagarriekin lotutako lanak egiteagatik sortutakoek ere, ondorioa izango dute Gipuzkoako Urak S.A.-k ordaindu beharreko zenbatekoan.

**Quinta.-** Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación, tales como el coeficiente de baja aplicable, excesos en liquidación, revisiones de precios, cambios de tipos impositivos, etc., así como las derivadas de la ejecución de proyectos modificados y de la ejecución de obras relativas a proyectos complementarios, repercutirán en la aportación a realizar por Gipuzkoako Urak S.A.

Hitzarmenean hasieran adostutako aurrekontutik gorako gastua irizpide honen arabera finantzatuko da:

- Aiako ur banaketako eroanbideen lanekin zerikusi zuzena duten gastu gehikuntzak Gipuzkoako Urak S.A.-k finantzatuko ditu.

- Gainerako gastu gehikuntza guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu.

**Seigarrena.-** Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Administrazio Publikoen arteko lankidetza hitzarmenetarako erabiltzen den zuzenbide antolamenduak zuzenduko duelarik bere interpretazioa eta garapena.

Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan arazorik sortuz gero, Administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak izango du horren ardura.

**Zazpigarrena.-** Parte hartzen duen alderdi bakoitzak bereganatzen dituen erantzukizunak lankidetza hitzarmen honen bidez bere gain hartzen dituen betebeharrekikoak baino ez dira.

**Zortzigarrena.-** Hitzarmena izenpetzen denetik aurrera izango du indarra eta behartasuna parte hartzen duten alderdientzat, eta hitzarmena gauzatzeko kontratatuko diren lanak likidatzen diren arte iraungo du indarrean.

**Bederatzigarrena.-** Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia amaitu delako edo hitzarmena hautsi delako.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea. Hitzarmena hausten bada, bi

El incremento de gasto que exceda del compromiso presupuestario inicialmente convenido será financiado conforme al siguiente criterio:

- Corresponderá a Gipuzkoako Urak S.A. financiar aquellos incrementos de gasto que tengan relación directa con la conducción de distribución municipal.

- Corresponderá a la Diputación Foral de Gipuzkoa financiar el resto de incrementos.

**Sexta.-** El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

**Séptima.-** Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente Convenio de Colaboración.

**Octava.-** El Convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación de la contratación de las actuaciones para su ejecución.

**Novena.-** El Convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las


Gozategi Enparantza 1.20809 Aia (Gipuzkoa). Telf. 943/13.11.44 – Fax 943/13-41-04. e-mail aia@udal.gipuzkoa.net

alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren, baita horiek egin ondoren --egingo balira – nola emango diren ere.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.

condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

**GIPUZKOAKO URAK S.A.,**

**Izp./Fdo.: Iñigo Elosegi**

**AIAKO ALKATEA, /**
**ALCALDE DE AIA**

**Izp./Fdo.: Igor Iturain**